



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 24an

91 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).

—San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exijitu diezaion Mitch erauntsiak kaltetutako herrien kanpo-zorra barka diezaien, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzia Batzordearen bilerarako deia egin dezan, hainbat gairen negoziaketa-prozesuaz hitz egiteko, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—“Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeke dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (9. or.).

—1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).

- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko aurrekonturako ematen duen ekarpenari buruzko galdera, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (12. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik publikoki lizitatu diren obren muntari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan 1999rako aurreikusi duten obren lizitazio publikoari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan aurrekontu-kontsignazioa izanik, burutzen ari diren obrei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (15. or.).
- Nafarroako abeltzaintzaren garapenerako Plan zuzentzailea (15. or.).
- Nafarroako nekazari eta abeltzainei arreta egiteko eskualde Plana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1998ko irailaren 15eko 68 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran defendatzen ahalko da 5 zenbakiko emendakina, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

Emendakin hori 1998ko urriaren 29ko 83 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legearen 22. artikulua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuko langile-gastuen kapituluari sartu beharreko kontusail bat ezarri zuen, "unibertsitateko irakasleen ordainketak gehitzeko, indarra duen legediaren arabera. Hala ere, aipatu kopurua erabiltzeko baldintza izanen da Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Unibertsitate Publiko irakasleen ordainketei buruz hartu duen erabakia, 1993ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, eta organo eskudunek proposatuta".

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publiko Gizarte Kontseiluak, Gobernu Batzordeak proposaturik, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatutako

Lege Organikoaren 33. artikulua 1. idazatian aipatzen diren kidegoetakoak diren irakasle funtzionarioei ordainketa kontzeptuak emateko erabakia hartu ahalko du.

Nafarroako Unibertsitate Publiko Gizarte Kontseiluak Parlamentuari bidaliko dizkio, ezagun ditzan, irakasleentzako ordainketa osagarria banaka emateko aintzat hartu dituen irizpideak, banakako osagarri hori betetzen hasi baino lehen.

2. artikulua. Unibertsitatearen urteko aurrekontuan ondokoak zehaztuko dira:

a) Langileen gastuen kapituluaren barrenean, 1. artikuluan aipatzen diren ordainketa kontzeptuak aplikatuzetik heldu den zenbateko osoa.

b) Onuradun bakoitzari dagokionez, zenbateko oso hori banatzeko irizpideak, Gizarte Kontseiluak hartuta Gobernu Batzordearen proposamenean oinarriturik, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Banakako ordainketa kontzeptu hauetako bakoitza jasoko duten pertsonen banakako zerrenda, bakoitzak jasoko dituen zenbatekoak zehaztuta.

3. artikulua. 1. artikuluan aipatzen diren ordainketa kontzeptuak aplikatzeko urtean baimendutako gehieneko zenbatekoa, osotara, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeek ezarriko dutena izanen da.

Xedapen gehigarria

Bizilekuko osagarria, irakasteaz arduratzeagatik eta irakasleak parekatzeko osagarria deiturikoak direla eta, 1993ko urtarrilaren 1etik 1998ko urtarrilaren 1era bitartean Nafarroako Unibertsitate Publiko langileei emandako zenbatekoen aplikazioari buruzko erabakia Gizarte Kontseiluak hartuko du, Unibertsitatearen Erreformari buruzko

abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, baina ezin izanen da aurrekontu ekitaldi bakoitzean benetan emandako zenbatekoa gehitu.

Xedapen iragankorrak

1998ko aurrekontuko ekitaldirako baimendutako gehieneko zenbateko osoa 1998ko urtarrilaren

1etik aitzina ondorioak izateko aplikatu ahalko da, 1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramailearen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa

Osasun zerbitzu eta prestazioen berdintasunak eta gizarte eraginkortasunak behar dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren helburu nagusi.

Erabiltzailearen ikuspuntutik, zerbitzu-kultura berria eskatzen dute helburu horiek; izan ere, Nafarroako medikuntzak gizarte-konpromiso berria hitzartu behar du gizartearekin eta eriekin, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren laguntza kirurgiko programatuaren kalitatea eta eraginkortasuna bermatzearen.

Konpromiso horrek aitortu egiten du aipatu bermea lortuko bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanean ari direnen motibazioa eta kemena beharko direla, orobat jarduera mediko eta kliniko onaren ildotik ere jarraitzea, osasun-langileen beraien banakako eta taldeko etikak, zinez, hala eskatzen duelako: horiexek bihurtuko baitira aipatu bermearen eta bere gizarte-eraginaren katalizatzaile.

Lege bat aldarrikatzea, hala ere, ez da bide baten bukaera, hasiera baino. Izan ere, bidea ibili behar da Nafarroako Osasun Zerbitzu baten xerkan, herritarrengana eta haien osasunera lerra dadin, ospitaleen kudeaketaren autonomiara, prestazioen kalitatera eta gizartetara, baliabide garestien kontsumoaren eraginkortasunera, burokrazia arintzera eta herritarrek, lanbidedunek eta sindikatuek parte hartzera.

Kudeaketa publikoa hobetu behar da —eredu pribatuekin ordezkatu beharrean—, ez duelako eraginkortasunik gabea zertan izan; guztiz alde-rantziz: plangintza egokiaren barruan, baliabide publikoak arrazoiz esleituta eta zentro bakoitza kudeaketa-autonomia nahikoarekin aritzen bada, erantzun hobe eman dakieke kalitatezko helburu eta estrategiei, azken horiek etengabe planifikatu eta aztertu behar badira ere, aldaketei egokitu eta etengabeko hobekuntzan ibiltzeko.

Erakunde osoak du osasun zerbitzuen kalitatearen erantzukizuna, ez osasun-lanbidedunek bakarrik.

XXI. mendearen atalasean, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduera oren ardatz behar du

eriak, eta antolaketa- eta zereginen egiturak haren inguruan ibili behar du.

1. artikulua.- Nafarroako Osasun Sistema Publikoan sarturik dauden eta laguntza kirurgiko programatua behar duten eriek, sendagileak laguntza hori agindu eta ahal bezain laster jaso dezatela bermatzearen, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Foru Lege honetan aurreikusitako neurriak hartuko ditu.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, osasun prestazioen organo kudeatzailea den aldetik, berari atxikiriko ospitaleetan kirurgiarako itxaron-zerrenda banan-banan ebaluatu eta kontrolatzeko tresnak sortuko ditu, ospitale bakoitzeko Eriaren Arazoetarako Unitatearen bidez.

Horretarako, zerbitzu kirurgikoek banakako itxaron-zerrenda bat edukiko dute, eria- gaixotasunerako komenentzia kirurgikoaren arabera.

2. artikulua.- Une horretan ebakuntza kirurgikorako behar diren baldintza klinikoak benetan ematen direlako, Nafarroako Osasun Zerbitzuko dagokion espezialistak eria-ri ebakuntza egiteko adierazpena jakinarazi eta 30 egun igaro badira, ospitaleetako Eriaren Arazoetarako Unitateek eria-ri, zuzenean eta banan-banan, ebakuntza egiteko eguna jakinaraziko diote, hurrengo 15 egunen barruan. Hurrengo 75 egunen barruan egin beharko da ebakuntza, ospitalean bertan.

3. artikulua.- Ebakuntza kirurgikoa ezin bada aurreko artikuluan ezarritako epean eta ospitale berean egin, ospitale horretako Eriaren Arazoetarako Unitateak berehala helaraziko dio kasua dagokion ospitaleko Zuzendaritzari; aldi berean, eria ospitalean bertan eta erabakitako epean arta- ezinaren arrazoiak gaztigatuko dizkio.

Ospitaleko zuzendaritzak, berehalaxe hartuko ditu zuzentzeko neurri egokiak, eginkizunen eta antolaketa- ren aldetik, ebakuntza kirurgikoa aipatu epean egitea ahalbidetzeko.

4. artikulua.- Ezinbestez –medikuei edo eria-ri berari ezin egotzizko arrazoiengatik–, ospitaleko zuzendaritza neurri-rik hartu ezinean baldin bada-

go, ebakuntza ospitale berean eta aipatu epean egiteko, ospitaleko zuzendaritzak haxe proposatu-ko dio Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzari, eriarekin ados: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste ospitale batera bidaltzea. Horretaz gain, eria-ri arretarik ez emateko arrazoiak aipatu beharko dira, baita hartutako neurriak ere, antzeko kasuak berehala zuzentzeko behar diren proposamenekin batera.

5. artikulua.- Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzak, eriarekin ados, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste zentro publiko batera bidaliko du eria.

Halakorik gertatuz gero, Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzak berehalaxe proposatu eta hartuko ditu era guztietako neurriak, halakoei aurrea hartu eta berriz gerta ez daitezten.

6. artikulua.- Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean gehienez ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Zuzendari Kudeatzaileak –Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzak eta ospitaleetako zuzendariek proposatuta– neurri egokiak hartu eta proposatuko ditu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ospitaleetan 120 egunetik gorako kirurgiarako itxaron-zerrenda izateko arrazoiak zuzentzeko.

Xedapen indargabetzailea

1. Indarrrik gabe gelditu da irailaren 29ko 138/1998 Foru Agindua, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa.

2. Indarrrik gabe gelditu dira Foru Lege honek aurreikusitakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena

Urriaren 13ko 293/1998 Foru Dekretuak aldatu egin du abuztuaren 17ko 246/1998 Foru Dekretua, San Frantzisko Xabierkoa ospitale psikiatrikoa zentro psikogeriatriko bihurtzeko arauak eman zituena. Azken horren 10. artikulua indarrrik gabe utzi du; izan ere, artikulua horrek aipatu zentro psikogeriatrikoan zerbitzuak emateari aplikatu beharreko tarifen araubidea ezarri zuen.

Erreforma psikiatrikoaren aurreratzeak eta sendotzeak zerbitzu ematearen doakotasuna mantendu behar dute, une honetan ez ezik –293/1998 Foru Dekretuak halaxe baitio–, modu iraunkorrean ere. Baliabide materialak eta giza baliabideak modu ezin hobean aprobetxatu behar dira, Foru Komunitatearen gaur egungo lehentasun eta behar sozialei dagokienez, eta Nafarroako adimen osasunaren gaurko eredia osatu, eredu komunitario eta integratzaile batekin.

Artikulu bakarra.- “San Frantzisko Xabierkoa” Zentro Psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubidea doakoa izanen da eta, beraz, ez zaio inongo tarifari lotuko.

Xedapen indargabetzailea

1. Indarrrik gabe gelditu dira Foru Lege honetan xedatuaren aurkakoak diren maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exijitu diezaion Mitch erauntsiak kaltetutako herrien kanpo-zorra barka diezaien

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exijitu diezaion Mitch erauntsiak kaltetutako herrien kanpo-zorra barka diezaien”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren bidera-pena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatzeko.

Mitch erauntsiak Ertamerikako herriak ukitu ditu, eta Honduras, Nikaragua eta Guatemala hondatu. Ondorioz, munduko eskualde hori ezinean geratu da; alegia, kanpo-zorra ordaintzeko konpromisoerik aurre egin ezinik, eta erauntsiak eragin duen hondamena konpondu eta kaltetutako biztanleerik lagundu ezinik.

Ezker anitzak kudeaturiko Frantziak hauxe erabaki du, bere kabuz: Mitch erauntsiak hondatu dituen Ertamerikako herri horiek Frantziarekin zuten zorra barkatzea.

Hori dela-eta, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuari hauxe exijitu diezaion: Mitch erauntsiak kaltetu dituen herriek duten kanpo zorra guztiz barkatzea.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzia Batzordearen bilerarako deia egin dezan, hainbat gairen negoziaketa-prozesuaz hitz egiteko

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzia Batzordearen bilerarako deia egin dezan, hainbat gairen negoziaketa-prozesuaz hitz egiteko”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egin-

dako bilkuran, mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1998ko azaroaren 10eko 86 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

“Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertze dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak “Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertze dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduen babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean, azken urteotan, kontusail bat agertu da, hurrengo izenarekin: Bizibiderik ez duten eta atzerrian bizi diren nafarren egoera aztertze dirulaguntza; hurrengo diru kopurua du: milioi bat.

Parlamentari honek jakin nahi du:

- Kontusail horren betetze-egoera, 1998an eta 1997an.

- Gastatu baldin bada, azaldu zertan. Azterketa egin baldin bada, horri buruzko dokumentazioa.

- Gastatu ez bada, eman bitez arrazoiak, eta baita kontusaila kentzeko edo gastatzeko aurreikuspenak.

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Suhiltzaileen Partzuergoak emandako datuen arabera, 144 baso-sute izan dira gure Komunitatean eta 220 hektarea erre dira 1998ko uztailaren 1a eta urriaren 15a bitartean.

Datu horiek eta partzuergoak 1997rako aldi bererako eman zituen datuak konparatzen baditugu -27 baso-sute eta 15 hektarea erre-, baso-suteak eta haien eraginak nabarmen hazi direla ikusiko dugu: 1997koak bost halako izan dira baso-suteak, eta eragindako azalera, 13 aldiz handiagoa; beraz, afekzio portzentuala % 1.400 izan da.

1998ko kanpainan zehar, baso-sute gehiago izan denez Nafarroan, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1. Baso-suteen zerrenda. Hurrengoak aipatu: noiz gertatu den, udalerrria eta zenbat hektarea kaltetu diren. Eragindako hektareetan, zenbat dira arboladiak eta zer espezieetakoak? Ingurugiro Departamentuaren ustetan, noraino da larri suteetako bakoitza?

2. Baso-suteen gehikuntzari aurre egiteko, ohiko langileak aritu dira -hau da, Lizarra, Miluze, Zangoza eta Tafallan diren kanpainako lau parkeetakoak- edo giza-baliabide gehiago erabili

behar izan al dira? Behin-behineko behatoki gehiago jarri al dira, behintzat, normalean erabiltzen diren 17 behatokiez gain?

3. Zeintzuk izan dira lehen aipatu suteak eragin dituzten arrazoiak? Ingurugiro Departamentuaren ustetan, zein da suteen kopurua lehertzeko arrazoi nagusia?

4. Bestelako entitate, erakunde edo administrazioekin lankidetzan aritu al dira aipatu baso-suteak itzaltzeko? Zeinekin eta zein kasutan?

5. Nafarroako Gobernuak, zer jarduketa aurreikusi du edo abiarazi nahi du 1999ko kanpainari eraginkortasun handiagoz ekiteko? Nafarroako Gobernuak, zer jarduketa egiten ari da edo egiteko asmoa du kaltetutako aldeak bereonertzeko? Zein kasutan?

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko aurrekonturako ematen duen ekarpenari buruzko galdera

PEDRO ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko aurrekonturako ematen duen ekarpenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Antuñano Zárragak, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Hainbat kopuru eman izan dizkio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren aurrekontuari, osasun arloko eskumenak jaso zituenetik. Ekarpenera horiek aldatuz joan dira, urteak igaro ahala, horra: 1992an osasun-aurrekontua 50.955 milioi izan zen eta Nafarroako Gobernuak % 8,7 eman zuen; 1995eko osasun-aurrekontua 57.038 milioi izan zen, eta Gobernuak % 8,1 jarri zuen; 1996 urtean, aldiz, 60.565 milioi izan zen osasun-aurrekontua eta % 4,7 egokitu zitzaion Gobernuari.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari ematen dizkionak nabarmen jaitsi direnez azken urteotan, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbat diru eman dio -zenbateko garbia eta portzentaia- Foru Osasunari 1997ko ekitaldian (64.578 milioiko aurrekontua izan da), dirusarrera berekiak, Gizarte Segurantzaren ekarpenak eta Estatuarentzako kupoa kendu ondoren?

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikuspen balioetsirik egin al du 1998. urterako, aipatu Osasun Departamentuaren 69.123 milioiko aurrekontuari ekarpena egin edo hartan parte hartzeko?

3.- Orobat, Osasun Departamentuaren 1999rako aurrekontua dela-eta, Nafarroako

Gobernuak aurrekontu horri egin beharreko ekarpenaren zenbateko kalkulatu al du, edo portzentaia balioetsi, Estatuaren ekonomi antzetzokiaren baitan?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 28an

Foru Parlamentaria: Pedro Antuñano Zárraga

Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gizakien osasunerako eta ingurugirorako sor ditzaketen arriskuei aurrea hartzeko asmoz, ekainaren 3ko 15/1994 Legeak genetikoki aldarazitako organismoen erabilera murriztuari, borondatezko askatzeari eta komertzializazioari buruzko araubide juridikoa ezarri zuen. 1997ko ekainaren 20an onetsi zuten aipatu legea garatu eta beteazterazteko erregelamendu orokorra.

90/219/EEE eta 90/220/EEE zuzentarauek gaiotan duten edukia jaso dute aipatu bi arauak, eta autonomia erkidegoen esku utzi genetikoki aldarazitako organismoen erabilera murriztuari buruzko eginkizunak eta horiek, ikerketarako, garapenerako edo komertzializazioa ez beste helburuetarako borondatez askatzeko baimenei buruzkoak (azken horretarako eskumena Estatu-ko Administrazio Nagusiak eta ez beste inork ez duelarik).

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, gure Komunitateak eskumenak dituen alorretarako, izendatu beharra zegoen aipatu eskumenak, bai eta behar diren baimenak emateko ahalmena ere, bere gain hartuko zituen organoa.

Nafarroako Gobernuak, ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari esleitu zizkion genetikoki aldarazitako organismoen erabilera murriztuarekin eta borondatezko askatzearekin loturiko eginkizunak.

Nafarroako Gobernuak Biosegurtasunerako Foru Batzordea izena jarri dio aipatu organoari, eta, aipatu Departamentu arduradunaz gain, Nafarroako Gobernuko hurrengo departamentuak ere sartu ditu, aholkua eman eta parte har dezaten: Osasuna; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura; Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan eta Hezkuntza eta Kultura departamentua.

Biosegurtasunerako Foru Batzordea dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Nafarroako Gobernuak izendatu al ditu aipatu Batzordearen kideak; alegia, 204/1998 Foru Dekretuak aipatzen dituen departamentuen ordezkariak? Nortzuk osatzen dute Biosegurtasunerako Foru Batzordea?

2. Aipatu Dekretuak bere 3. artikuluan aipatzen dituen txostenetatik zenbat eman ditu Batzorde horrek? Zer gai aipatzen ditu horietako bakoitzak? Zenbat txosten bidali dizkio Biosegurtasunerako Estatu Batzordeari? Alderantziz, zenbat txosten hartu ditu Estatu Batzordetik? Zer gai aztertu ditu horietako bakoitzak? Emandako eta hartutako txostenetan agertu den iritzia nolakoa izan da, planteatu diren gaien aldekoa ala kontrakoa?

3. Batzorde honek, edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamen-

tuak, zenbat baimen eman ditu, zer produktutarako eta zer helburutarako?

4. Azken baimen horiek direla eta, halakorik eman bada behintzat, baldintzarik jarri al da erabilerarako? Zeintzuk dira baldintzok, horietako

bakoitzean?

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Patxi Zabaleta Zabaleta, Ezker Abertzalea deituriko talde parlamentarioko eledun honek, Legebiltzarreko Arautegian dagoenaren arabera, idatzirik erantzunak izan dakizkion hurrengo galderak egiten dizkio Nafar Gobernuko Osasun Sailari.

1.- Osasunbideako Anbulatorioetako Kanpoko Azterketa Zerbitzuak langile zerrenda bat eskatu zion INEMeri 1996ko ekainean edo lehentxeago, ordezkapenak egiteko edo.

Zeinek eskatu zion zerrenda hori? Zein dira zerrenda horren helburu zehatzak? Eta INEMek egindako zerrenda hori bera, zeinek osatzen du –izen eta abizenak emanez– eta zein da beraien lerrokatzea?

2.- Osasunbideako Anbulatorioetako Kanpoko Azterketa Zerbitzuko langileen lan harremanen etenaldietarako behin-behineko ordezkatzak (eta ordezkatzak berrorrek behar dituen hitzarmen laboralak) ez dira egiten nonbait Funtzio Publikoko Estatutoak agintzen duenaren arabera eta eztaere INEMek 1996ko ekainean emandako zerrenda jarraituz.

Zergatik ez da jarraitzen INEMek emandako zerrenda behin-behineko anbulatorioetako langileen ordezkapenerako diren lan hitzarmenetan? Zergatik ez da betetzen Funtzio Publikoko Estatutoak diona lan hitzarmen horietarako? Zein dira ordezkapen horietarako ezarritik dauden irizpideak, baldin balego bakarren bat, eta nork emandakoak?

Iruñean, 1998ko azaroak 10

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik publikoki lizitatu diren obren muntari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik publikoki lizitatu diren obren muntari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Estatuko enpresa eraikitzaileen elkarteak Estatuan banatzen duen argitalpen batean berrikitan agertu denaren arabera, Nafarroa omen da obren lizitazio publiko txikienetakoa duen erkidegoetako bat.

Datu horiek kontrastea egiten dute aipatu elkarteak obren eraikuntzaren sektoreaz egiten duen azterketarekin; izan ere, oso aldekotzat jo dute, eta, aipatu ere, aipatu dute gobernu autonomoek eta bestelako administrazioek beste erkidego batzuetan sustatu eraikuntzak nabarmen hasi dela.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik publikoki lizitatu diren obren munta dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Zein izan da obren lizitazio publikoaren munta gure Komunitatean, 1998ko ekitaldian zehar? Lizitaturiko obra bakoitzarentzako eskatzen dira: tokia, jarduketaren azalpena, lizitazio-eguna eta aurrekontua.

2. Zein izan da obren lizitazio publikoaren munta gure Komunitatean, 1997ko ekitaldian? Lizitaturiko obra bakoitzarentzako eskatzen dira: tokia, jarduketaren azalpena, lizitazio-eguna eta aurrekontua

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan 1999rako aurreikusitako obren lizitazio publikoari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan 1999rako aurreikusitako obren lizitazio publikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Oraintsu aurkeztu dute 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua. Proiektuaren barruan, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa osatzen duten departamentuetako hainbat inbertsio eta jarduketarako aurrei-

kuspenak ageri dira, dagozkien aurrekontu-egozpenekin.

Askotan, obra horiek lizitazio-prozesua behar izaten dute, obrei ekin baino lehen, eta hurrengoie ere egokitu behar zaizkie: Nafarroako Gobernuko departamentuetan aurretik egindako programazioari, eta Nafarroako Gobernuak berak egindako programazio orokorrari.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan 1999rako aurrekusi duten obren lizitazio publikoa dela-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Nafarroako Gobernuko departamentuek 1999an zehar garatzeko egin programazioaren

arabera, zein da gure Komunitaterako obren lizitazio publikorako aurreikuspena? Lizitatzeko obra bakoitzarentzako eskatzen dira: tokia, jarduketaren azalpena, lizitazio-eguna eta aurrekontua.

2. Aurreko galderan aipatu obra bakoitzaz ari garela, zein da 1999ko aurrekontuaren kargurako finantzaketa-aurreikuspena? Zein ondorengo ekitaldietako aurrekontuen kargurakoa, urte anitzeko programazioa duten jarduketei bagagozkie?

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan aurrekontu-kontsignazioa izanik, burutzen ari diren obrei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan aurrekontu-kontsignazioa izanik, burutzen ari diren obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurrekontu-programazio orok –eta, beraz, 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektu berrikitan ezagutua egiteko erabili denak– bere baitan sartzen ditu, alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren

departamentuek lizitatzeko aurrekusi obren programazioa, aurrekontu-kontsignazioen zati bat eta guzti; bestetik, burutzen ari diren jarduketak ere sartzen dira, aurrekontuetan jasotako dotazio ekonomikoak beharko dituztelako, jarraipena eta garapena emanen bazaizkie.

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan aurrekontu-kontsignazioa izanik, burutzen ari diren obrak direla-eta, hurrengo galderentzako erantzuna eskatzen dut:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa, 1998ko abenduaren 1ean, burutzen ari den obren zerrenda. Hurrengoak eskatzen dira horietako bakoitzarentzako: zein administrazio-fasetan dagoen (esleitu, kontratatua, burutzen, obrak bukatu, bermealdian, edo emanda, bermealdia bukatu ondoren).

2. Orobat, aurreko galderan aipatu obra bakoitzaz ari garela: noiz hasi den, burutzeko epea, guztizko aurrekontua eta urtez urtekoa, obraren azalpena, non egiten ari diren eta noizko bukatuko den.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1998ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztutako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko urriaren 27ko 82 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko lehendabiziko azken xedapenean ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena ohizko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Erregelamendu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik epe bat ireki da, **1998ko abenduaren 16ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako abeltzaintzaren garapenerako Plan zuzentzailea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko azaroaren 9an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako abeltzaintzaren garapenerako Plan zuzentzailea bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Bozeramaileen Batzarri entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikuluekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako abeltzaintzaren garapenerako Plan zuzentzailea tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak emango duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Planaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Nafarroako nekazari eta abeltzainei arreta egiteko eskualde Plana

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1998ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskualdez eskualde laguntzeko Plana onetsi zuen, eta honako erabaki-proposamen hauek gehitu zizkion:

1) IV. ATALEAN, ESKUALDEZ ESKUALDE LAGUNTZEKO PROPOSAMENA izenekoan, Barrutiko Bulegoei buruzko lerroaldean, honako testu hau ezabatzea:

“Eta ez du nahitaez egitura jakin batekin bat etorri behar; bestalde, horietako bat kentzeak (zerbitzuaren beharrianak direla-eta) edo titularra desagertzeak ez du esan nahi udalerrri horretan bertan kokatuta segituko duenik: inguruetako beste batera edo Eskualdeko Bulego batera lekualdatu ahal izanen da.”

2) IV. ATALEAN, ESKUALDEZ ESKUALDE LAGUNTZEKO PROPOSAMENA izenekoan, igorritako testuaren ordezketa egitea 5. lerroaldean. Alegia, Barrutiko Bulegoei dagokienean, horien titularrek mugakide diren edo hurbil dauden beste udalerrri batzuetan zerbitzuak ematen segitu ahal izanen dute, Nekazaritzako Toki Ganberetako titularrek orain arte egin duten bezala dioen testua beste honekin ordeztu:

“Barrutiko Bulegoei dagokienean, horien titularrek mugakide diren edo hurbil dauden beste udalerrri batzuetan zerbitzuak ematen segituko dute, Nekazaritzako Toki Ganberetako titularrek orain arte egin duten bezala.”

3) IV. ATALEAN, ESKUALDEZ ESKUALDE LAGUNTZEKO PROPOSAMENA izenekoan, igorritako testuaren ordezketa egitea 5. lerroaldean. Alegia, Bulegoko titularra inguruetako udalerrietara joan daiteke astero, egun batez, kontsultei erantzuteko dioen testua beste honekin ordeztu:

“Bulegoko titularra inguruetako udalerrietara joanen da, kontsultei erantzuteko.”

4) ESKUALDEZ ESKUALDE LAGUNTZEKO PROPOSAMENA izeneko IV. ataleko 5. lerroaldearen ondoren lerroalde berri bat gehitzea. Hauxe izanen du testua:

“Horretarako, Nafarroako Gobernuak, Plana onetsi ondoren, egutegi bat prestatuko du, Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskualdez eskualde laguntzeko Plan honen bidez eraturiko egitura berriarekin mugakide diren edo bertatik hurbil dauden beste udalerrri nagusi horien benetako beharrianei erantzun ahal izateko.”

5) Gehikuntza.

Barrutiko Bulego bat sortzea Bortzirietan. Udalek erabakiko dute zein herritan.

6) Gehikuntza egitea honako honetan: 4.2.2. Banaketa, 26. orrialdea, A- Mendialdea, Leitza.

Arano herria sartzea.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikulua xedaturikoa betez, argitara dadila agintzen da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------